

## ELKARTASUN INTERNAZIONALISTA ETA FEMINISTA BRASILERANTZ

### Marielle Franco ekintzaile feminista erail dute Brasilen



Bizitza bizigarri baten alde emakumeok egiten dugun borrokak, ezin du emakumeok erailtzeko arrazoa izaten jarraitu. Marielle Franco, 38 urteko feminista, beltza, lesbiana eta antikapitalista tiroz hil dute. Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik Marielle Franco Brasilgo ekintzaile feministaren erailketa salatzen dugu. Bere ideiegatik, lanagatik, emakumeon eskubideak defendatzeagatik eta isilik ez egoteagatik hil dute. Eta guk ere ozen esan nahi dugu, ez dugula erailketa matxista bat gehiago onartuko.

Tiroz hil zuten atzo Marielle Franco ekintzaile feminista Rio de Janeiro hiriko erdigunean. Autoan zihola la beste auto batetik tiroka eraso zioten, bera eta gidaria akabatuz.

Giza eskubideen, eta bereziki, fabeletako emakume beltzen eskubideen alde eta biolentzia polizialaren aurka aritu izan da borrokan. Egun, Sozialismoa eta Askatasuna alderdi ezkertiarreko kide eta Rio De Janeiroko zinegotzia zen.

Erailketaren bezperan altxa zuen azkenengoz ahotsa, Rio de Janeiroko fabeletako okupazio militarra gaitzesteko. Egun batzuk lehenago tiroz hil zuten 23 urteko gaztearen heriotza izan zuen abiapuntu; gaztearen familia polizia militarari egotzi ziona, eta hala galdetu zuen: “zenbaterik hil behar dute gerra hau amaitu dadin?”. Salaketa publiko egin eta egun batera erail dute Marielle Franco.

Argi dugu kasualitatea ez dela existitzen. Sistema heteropatriarkal, arrazista, klasista eta kolonial honetan eroso daudenek ez dituzte Marielle Francorenak bezalako ahotsak entzun nahi. Ez dute eskubideen defentsan egiten den aldarririk nahi. Ez dute biolentzia polizialaren aurrean makurtzen ez den inor nahi, eta gutxiago emakumeak bagara. Horren aurrean arma bakarra dute: biolentzia.

Baina ez gara nekatuko esateaz, guk ez dugula isiltzeko asmorik, gu ez garela makurtuko eta gure aldarriak eta borrokak entzun eta sentitu egin beharko dituztela.

Elkartasun eta besarkadarik beroena bidaltzen dugu Euskal Herritik Brasilerara. Triste gaude, bai. Horrelako albisteek sabela korapilatzen digute. Baina aldi berean elkartu ere egiten gaituzte. Gaur arte ez genuen martxan jarraitzeko arrazoirik falta, eta orain bat gehiago dugu. Marielle Francok eta beste emakume askok, munduko hainbat txokotan egiten duten lanagatik eta sistema basati honi arrakalak irekitzeko beharra dugulako, martxan jarraituko dugu denok aske izan arte. Marielle Francok esan zue-nari zor, oihu egin behar dugu, denek jakin dezaten zer ari den gertatzen.

Marielle bizirik, Berta bizirik,... eta kapitalismo patriarkalak abian duen sorgin-ehizaren ondorioz eraildako emakume ekintzaile guztiak ditugu gogoan.

Euskal Herrian, 2018ko martxoaren 15ean  
EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

